

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO OINARRI LEGALAK

(#Geure ekitaldirako Instagrameko komentarioen zozketa)

1.-SUSTAPENRAREN ENPRESA ANTOLATZAILEA

Komunikatik SM enpresak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazte Sailaren izenean, Bizkaiko Getxo herrian helbidea duenak B95744058 zenbakiz identifikaturik, Gipuzkoan bizi diren 14-18 urte bitarteko Instagram erabiltzaileentzako soilik zozketa antolatzen du. Zozketan parte hartzeko baldintzen atalean ezarritakoa jarraitu behar da.

2.-HASIERA ETA AMAIERA DATAK

Zozketa 2019ko otsailaren 9an, arratseko 16:00etan hasiko da eta 2019ko otsailaren 22an amaituko da gaueko 21.59an.

3.-PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA SUSTAPENAREN PROZEDURA

Parte hartzeko baldintzak ondorengoak dira:

Gipuzkoan bizi diren 14-18 urte bitarteko pertsonak parte hartu ahal izango dute.

- Instagram kontua duten pertsonak soilik parte hartu ahal izango dute.
- Partehartzaileek Gipuzkoako influencerren galderetako bati erantzun behar diote hashtag #Geure erabilita. Galderak genero eta gazteei buruzkoak dira.
- Partehartzaile bakoitzak Instagram profil bakarrarekin parte har dezake. Pertsona ba, Instagram profil gehiagorekin parte hartzen badu, kanpo geratuko da.
- Argitalpen baten komentario bati erantzun batzuk idatzi arren, zozketarako erantzun bakartzat hartuko da.
- Irabazleek, ekitaldira sartu ahal izateko, NANA eta aurretik bidali diegun gonbidapena aurkeztu behar izango dituzte

4.-SUSTAPENAREN BALDINTZAK ETA SARIAK

Irabazlea Easypromos plataformaren bidez ausazko aukeraketaren bidez egingo da. Irabazleek zozketa ondorengo egunetan gonbidapena jasoko dute.

Saria Donostian 2019ko martxoaren 9an arratseko 18:00 eta 19:30 bitartean influencerrekin Donostiako Kursaal-ean ekitaldi batera joateko 200 sarreretako bi izango dira. Saria ezin da diruz edo beste sariz trukatu eta ez dago aldatzerik.

Zozketa bera eta sariaren ematea indarrean dauden arauen menpe daude.

5.-KANPORATZEA ETA ZIGORRA

Oinarri legaletako baldintzak bete ez dituen partehartzailerik egotekotan edo parte hartzeko datuak baliagarriak ez izatekotan, parte hartzea eta zozketako opariak jasotzeko eskubideak galduko dira automatikoki.

6. KOMENTARIO EDO IRITZIEN ARGITALPENA

Ez da onartuko desegokia, iraingarria, mingarria edo diskriminatzailea edo beste pertsonen eskubideak kalte dezaketen komentariarik. Ohore, norbera edo bere familiaren pribatasuna, bere irudi publikoa kaltetzen dituzten komentarioak ere ez dira onartuko. Guk ez dugu zozketako partehartzaileen komentarioen ardura hartuko norbait mindu edo sentikortasuna kaltetzen badu.

Partehartzaileek oraingo zozketan parte hartzean eta komentarioak argitaratzean ezin dute, inola ere, Instagramako komunitatearen arauak edota Instagram erabiltzeko baldintzak urratu.

7. ARDURAREN SALBUESTEA

Zozketa oztopa dezaketen hurrengo ardurak ez ditugu hartzen: galtzea, lapurtua izatea, atzeratzea edo beste pertsona batzuen erruz gerta daitezkeen beste arazo batzuk. Irabazleek saria nola erabiltzen duten ere ez dago gure ardurapean.

Zozketa ezinbesteko kasu batengatik ezin bada egin edo saria ezin bada osotasunez edo neurri batean gozatu ez da gure ardurapean egongo.

8. -DATU PERTSONALEN BABESA

Datu babesen araudi orokorrean ezarritakoaren arabera, zozketak ez ditu partehartzaileak zuzenean identifikatuko dituen datu pertsonalak bildu behar. Partehartzaileak, oinarri legalak onartzean, jakin behar du bere datu pertsonalak fitxategi batean egongo direla zozketa kudeatzeko eta, era horretan, emaitzak zabaldu, publikitatea egin eta saria emateko kudeaketa egin ahal izango da.

info@komunikatik.com helbidera mezu elektronikoko edo eskutitz baten bidez (Obispo Echeandia nº10. Getxo) NANA gehituta, ondorengo egin dezakezu: datuak zuzendu, ezabatu, aurka egin, datuen tratamendua, ahaztea eta eramangarritasuna mugatu. Baita automatikoki hartzen diren norberaren erabakietatik kanpo egon.

9. -ALDAKETAK ETA ONARPENA

Zozketako partehartzaileen eskubideak gutxitu edo kaltetzen ez diren bitartean, eskaintza honen baldintzak aldatu edo zabaltzeko eskubidea dugu.

Zozketan parte hartzeak Oinarri Legal hauek dituzten baldintzak onartzea dakar. Era berean, honelako zozketa batean parte hartzeak Instagrameko sare sozialen arauak onartzen direla ulertzen da. Bere bitartez egiten baita zozketa

10.-BALIOZKO LEGERIA ETA JURISDIKZIOA

Oinarri legal hauek Espainiako legearen barruan daude. Partehartzaileen hiriaren epaitegiek eta auzitegiek aginpidea edukiko dute oinarri legal hauek betearazteko, interpretatzeko, balioa emateko eta edozein kexa edo eztabaida konpontzeko.